hiruka

214. zenbakia
2024ko abendua



2025

Datorrena besarkatuz

Bazkideen txokoa

Eta zein da zure guraria 2025erako?

6-9

Javier Martin Return to Basque



«Argazki bilduma kolektiboa»

24-25 | Berbetan

Josu Zarate Kantuzalea

«Gabon-kanta berriak sortu behar ditugu»

26-27 | Kultura

MUXEBARRI

PROGRAMAZIOA
www.getxo-kultura.eus

URTARRILA

MUSIKA



IZAR GOSPEL UNITY
Right Now!

URTARRILAK 3
20:00/5 €

BERTSOLARITZA-MUSIKA



TABUEN KUTXATIK OHOLTZARA

Inurri Minbiziaren Aurkako Elkartearen aldeko ikuskizun solidarioa

URTARRILAK 5
19:30/5 €

MUSIKA



ANDREZJ OLEJNICZAK
40 urte euskadin

URTARRILAK 18
20:00/12 €

HAURRAK



MOKO
Gorakada

URTARRILAK 19
18:00 / 6 €

94 466 01 23
kulturetxea@getxo.eus
www.getxo-kultura.eus

Getxo bizi ezazu
GETXO KULTURA
Bizkaia foru aldundia diputación foral
EL CORREO
SALMENTA
- Romo Kultur Etxea
- Muxikebarri
- Kutxabank sarea
Sarreren salmenta: Venta de entradas: www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Amaia Legarreta

Erredakzioa: Nahia Martinez Gondra, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua eta maketazioa: Artefakto Estudio

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Uxune Iriondo, Gorka Mostajo, Janire Enzunza, Hodei Rodriguez, Iratxe Ormatza Imatz, Alex Orbe eta ALBE.

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

HIRUKAk ez du zertan bat etorri aldizkari honetan parte hartzen duten kolaboratzaileek adierazitako iritziakaz.

Erakunde laguntzaileak

Getxo bizi ezazu

Leioa Udala-Ayuntamiento Euskara Zerbitzua

Sopelako Udala

Plentzia Uraren bideak

Urduliko Udala

Gorliko Udala

Lemoiz Denona

Barrikako Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Aurkibidea

PUNTUA ETA KONTRAPUNTUA 4

2025ARI ZER ESKATU GURA ZENIOKE?
HIRUKAko bazkideek datorren urteari eskatutakoak 6-9

HERRIAK 10-17

HIRUDIKA
2024ak utzitakoak 18-23

ELKARRIZKETA
Return to Basque 24-25

ELKARRIZKETA
Josu Zarate, Gabonetako kantuez 26-27

GABONETAKO AGENDA 28-29

IRITZIAK ETA HOROSKOPOA 30

OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRENTZAKO ESKUTITZA 31-32

IPUINA 34-35

HIRUKIRA OLGETAN
Etxeko txikienentzako denborapasak 36-38

HIRUKALAGUNENTZAKO ZOZKETAK 40-41

FACEGUK
Gabonzaleak, bai ala ez? 42

Sistemak ez du huts egin?



UXUNE IRIONDO URBISTAZU Bilgune Feminista

Auzo-lotsatik amorrura. Erasoak etengabe, hitzez zein ekintzez. Emakunde entzun nuen irratian, «sistemak ez du huts egin», senar ohiak tiroz hil duen emakumearen kasuan. Botere-harremanetan, gizonak nagusi.

Euskara-eskakizunik ez lanpostu publikoetan. Huts egiten omen ez duen sisteman Getxoko Udalak gaztelaniarekin eroso eta euskararekin koldar jokatu du, auzitegietan gatazkak saihesteko baino bestelako negozio batzuen truke. Botere-harremanetan, elebakarrak nagusi.

GURARI etxea, Getxoko gune feminista. Aurten irekiko zutela agindu zigun Berdintasun zinegotziak. Gogoeta eta proposamen ugariko bide zintzoa egin dugu hor orain arte feministok, eta apiriletik gaude gure parte hartzea zein izango den jakiteko zain. Badakigu etxearen jarduna koordinatu eta dinamizatzeko erakunde bat hartu dutela, baina gu non, zertan ibiliko garen ideiarik ere ez. Berriz huts egin digu sistemak. Botere-harremanetan, aitzakia eta gezurra nagusi.

Guri patriarkatu kapitalista, kolonial, ekozida, arrazista, klasista, aporofobo, matxista, zishetero, kapazitista, hizkuntza eta kulturen suntsitzaile honek beti egiten digu huts.

Gora Palestina aske, ibaitik itsasoraino!

Autobidea infernura



HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA Jauzi Ekosoziala

Azaroan, Munduko Meteorologia Erakundeak iragarri zuen 2024a erregistroak daudenetik urterik beroena izatera bidean dela. Batezbesteko tenperatura industriaurreko garaietan baino 1,54 gradu beroagoa izan da, zientzialariek segurtasun tartetzat hartzen zuten 1,5eko igoera gaindituz. Badirudi Lurraren sistema klimatikoa infernuaren adierazpen lirikoetarantz hurbiltzen ari dela.

Antza, gure agintariek bultzada bat eman nahi diote infernurako bide horri autobide berri bat eraikiz. Artatza eta Ballonti lotuko lituzkeen Subflubialak trafikoa % 30 handituko luke, milaka kotxe gehiago jarriz errepideetan, garraio publikoaren kaltetan. Milioika tona CO2 gehiago isuriko lirateke atmosferara, klima larrialdia areagotuz. Aldundia prest omen dago infernura hurbilduko gaituen autobide bat eraikitzera, eraikuntza enpresek poltsikoak betetzen jarrai dezaten.

Agian trukean AC/DC banda ekarriko dute BBK Live-ra. Omenaldi polita izango litzateke proiektuarentzat, eta 1.000 milioiko kostutik hurbil egongo den azpiegitura batentzako euren cachea ez da ezer. *Highway to hell*-en soinupean dantzatzen ikusiko al dugu Pradales?

Espero dezagun ezetz. Otsailaren 8an dugu hitzordua erokeria hau geldiarazteko.

Puntua eta kontrapuntua **Gabonetako oroitzapenak**

Nostalgia



Haurtzaroan ze poz ta
emozio txute!
Olentzero ikusi
bihurtuta su, ke...
Argi ikuste eta
abesti entzute.
Gehiegikeri, gastu,
kontsumo, azukre...
Zuri ze oroitzapen
ekartzen dizute?

JONE URIA ALBIZURI
Getxo/Algorta

Gurean ohikoa zen
lebatza, kontsome,
ta zintzo portatuta
natillas Danone.
Urteen erritmoaz
ez nago konforme,
Gabonek pizten dute
nostalgia-sindrome,
zahartzen nabilela
izango da, Jone.

AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA
Itzubaltzeta/Romo

ALBE Algortako Bertsolari Eskola



10 urte

Beste batez urte amaierako aldizkari berezia duzue hau; daborduko hamar dira ospakizunez beteriko garai hauek zuokaz lerroon bitartez partekatzen dugula eta, nola ez, eskerrik beroenak helarazi gura dizkizuegu urteotan guztiotan gure bidelagun izan zareten horiei guztiei: irakurleak, kolaboratzaileak, bezeroak eta gure lana babestu duten erakunde eta talde guztiak. Zuek gabe, ibilbide hau ez litzateke posible izango. Esker mila!

Hamar urte beteko dira urtarrilean proiektu honi amets bati jarraituz ekin genionetik: Uribe Kosta euskaldunago, biziago eta bateratuago bat eraikitzen laguntzea. Harrezkero, zuen hitzak, ekarpenak eta iradokizunak bildu eta zabaldu ditugu, eskualdeko askotariko ahots eta pentsamenduei lekua eginez. Izan ere, HIRUKAren helburua beti izan da alde biren arteko zubi-lana egitea, euskara ardatz izanik, herritarrak protagonista bihurtuz.

2025a urte berezia izango da HIRUKArentzat, bideari ekin zionetik hamar urte beteko baitira. Hori horrela, ospakizun-ekitaldiak antolatzeko asmoa du komunikazio-taldeak. Horietara batuko zara?

Hala ere, ezin dugu ukatu bidea ez dela erraza izan; urteotan hainbat oztopo gainditu behar izan ditugu, eta, tamalez, tokiko erakunde batzuen babesa galdu –besteak beste, Berangoko eta Erandioko udalak– eta horien laguntzarik gabe jarraitu behar izan dugu aurrera, horiek hustutako motxila betetzeko bestelako hamaika bidezidor arakatuta eta horietara menturatuta. Hala, esan genezake galera horiek ez dutela gure indarra ahuldu; aitzitik, zuen babesa eta konfiantza gure erregai bihurtu dira eta, batera, aurrera egitea lortu dugu.

2024ari agur esango diogun honetan, eta 2025ari ondoetorria emateko prestatzen ari garen honetan, gure esker ona berriz ere zabaldu gura dizuegu. Urte amaiera zoriontsua opa dizuegu, eta urte berrian elkarregaz jarraitzea espero dugu, gure eskualdearen alde lanean, ilusioz eta determinazioz.

Eskerrik asko bihotzez. Gabon zoriontsuak eta urte berri oparoa izan! Zuokaz batera, aurrera jarraituko dugu, berton gertatzen dena zuongana gerturatzeko.

Postdata: 2025. urtea oso berezia izango da guretzat, eta, ziur gaude, zuentzat ere bai. HIRUKAk bere hamar urteko ibilbidea ospatuko du! Urteotan egindako bidea eta lortutako guztiak partekatzeko unea izango da. Beraz, adi egon eta gorde data, sorpresak eta ekimen bereziak datozelako... Elkarregaz ospatuko dugu! ◂

Lagundu gaitzazu hobetzen

Urtero urtero, egindako lana hobetzen saiatzen da HIRUKA proiektu komunikatiboa. Horretarako, baina, zuon, irakurleon, laguntza behar dugu. Zer aldatuko zenuke? Zer botatzen duzu faltan? Zer dugu hobetzekoa? Bete ezazu ondoko galdetegia...

hiruka
Prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!

Zer eskatu gura diozu 2025 urte

Itxas Argia elkartea

Bazen behin kultura gabeko gizarte bat. Ez ziren artea eta musika ezagutzen, ezta dantza ez kirola ere. Umetxoenek ez zuten antzerkira joateko aukerarik, ez baitzen halakorik. Gaztetxoek ez zuten *jai* hitzaren esanahirik ezagutzen eta, helduenek, ez zuten txokorik non elkartu. Emakumeek «euren» horretan jarraitzen zuten eta gizonezkoek «euren» hori babesten. Hori gutxi balitz, herriak ez zuen euskararik eta, beraz, ez zuen euskaraz zer ospatzerik.

Heldu zen urte akabua eta, horrekin batera, urte berrirako herritarren desioak. Umeek, oparien ordez, kaleak musika eta dantzaz betetzeko eskatu zieten Olentzero eta Mari Domingiri. Gaztetxoek talde ezberdinak sortzeko aukera eskatu zioten urte berriari, hala nola mendi-irteerak egiteko, bertsotan aritzeko, trikitia eta panderoaz lagunak girotzeko, antzezlanak artezaleei erakusteko eta frontoiak zein kiroldegiak kirolez betetzeko. Helduagoek ere desioz bete zituzten gutunak, udal-postontziek irentsi zitzaten. Eskatu zuten elkartasuna, eskatu zuten berdintasuna, eskatu zuten euskara eta eskatu zuten babesa. Gizarteak kultura bat eskatu zion urte berriari.

Urte berria heldu eta herritarren irribarreetan lehen eguzki-izpiak azaldu ziren. Desioak betetzen joan ziren eta laster ikus zitekeen gizarte berri bat. Gizarte bat non umeen ahotan euskara zebilen dantzari eta oin-puntetan dantza pausoak berbati. Gaztetxoak mendi gailurrak, enparantzak, frontoiak, hondartzak eta kaleak konkistatzen hasi ziren, txistuak, danbolinak, trikitiak eta panderoak girotuz. Postontziek helduen gutunak digeritu eta eskatutakoak banatu zituzten: emakume eta gizonezkoek «euren» berbera bat zuten, auzokideak auzolanean jarri ziren, instituzioek babes handiagoa eman zieten eta, eskupekoz, txoko bat ere lortu zuten.

Eta hala bazan edo ez bazan, kultura gabeko gizarterik berriro ez zen izan.

ALBE

URTE BERRIKO KOPLAK

Iritsi denez urte berria,
iritsi mende laurdena,
espero dugu izango dela
izan daitekeen onena!

Aurten guztiok nahiko genuke
baldintzak egokitzea.
Uribe Kostan lanpostuetan
euskara exijitzea!

Herri hau guztiz euskalduntzea
lor dezakegu, benetan;
ALBEk bertsoa tresnatzat hartuz
jarraituko du horretan!

Urte berria aprobetxatu
bertso zalea bazara,
une ederra baita batzeko
gure bertso-eskolara!

Azken desio eder bat dugu
eta hona zertan datzan:
urtero legez aurten zuekin
topo egitea plazan!

Kantu, otordu, famili, lagun,
Gabonak direnez Gabon,
ondo bukatu urtea eta
guztiei urte berri on!

eari?

2024a atzean utzi, eta 2025era salto egingo dugu laster. Hori horrela, urte berrirako zeintzuk asmo eta gurari dituzten galdetu diegu HIRUKAko bazkide diren hainbat eragileri. Zer eskatu gura diote? Eta zuk? Haiekaz bat egiten duzu?

San Nikolas Ikastola

San Nikolas Ikastolak erronka eta ametsez betetako 2025ari ateak zabaltzen dizkio. Gure begirada argia da: umea eta gizakia erdigunean jarriz, gizarte arduratsuago, inklusiboago eta euskaldunagoa eraikitzea.

Amets bat dugu: euskaraz arnasten duen komunitatea izatea.

Euskara gure kulturaren taupada da, eta 2025ean taupada hori indartzen jarraitu nahi dugu. Euskararen bidez, hitzek harreman berriak ehuntzea eta sortzaileak izatea da gure xedea. Antzerkiak, musika eta arte proiektuak garatuko ditugu, hezkuntza eta kultura uztartuz, gure komunitatean eragina izateko.

Irudikatzen dugu aniztasunean aberatsa eta elkartasunean sendoa den komunitatea.

Gure umeak errespetuz eta elkartasunez haztea nahi dugu, mundua begirada irekiarekin ikusteko gai izan daitezen. Gure kaleek elkarlanean oinarritutako gizartea islatu dezatela amesten dugu. Bultzatzen dugun jostailu bilketa, elikagaien ekimenak... urrats txikiak dira, baina gizarte justuagoa lortzeko bide argiak dira.

Eta gure komunitateak bihotz bateratua izatea nahi dugu.

Kooperatiba izanik lankidetza gure ardatza da, eta gure komunitatearekin elkarlanean bizitza hobeagoa sortzea dugu helburu. Denok batera, auzolana ikastolan bultzatzen jarraituko dugu ikasle, guraso eta lankideen artean, espazio ireki eta inklusiboetan hazteko aukera emango duen komunitatea eraikiko dugularik.

2025a ez da izango urtea, aukera baizik. Aurrera egiteko, harremanak sendotzeko eta gure ametsak errealitate bihurtzeko. San Nikolas Ikastolak konpromisoa hartu du: Erdigunean, ZU.

Berbots

Urtea bukatzean ohikoa izaten da urteak emandakoa gogoratzea eta hurrengoari desioak eskatzea. Aurtengo urtea borobila izan da: Korrikak euskaraz harro sentiarazi gintuen, euskaraz bizi nahi duen herria garela gogorarazi zigun. Erandion ere, Berbotsek egindako lan guztia gogoratu dugu, 30 urte geroago, lehenengo Kanpomartxo ospatu zen leku berdinean; ibilbide luzea izan du modu xumean herriko euskaldunak batu eta ezagutzeko helburuarekin hasi zen jaialdi hura. Aurten, Erandioko eta eskualdeko euskaltzaleez gain, Euskal Herriko txoko ezberdinetako Berbalagunak izan genituen, Kanpomartxorekin batera Mintza Egunа ospatzen. Eskualdeko euskaltzale eta Berbalagunen sarea ere osatu dugu. Elkarrekin euskararen egoeraz hausnartu eta ekintza bateratuak antolatzen hasi gara. Berbalagunak euskara praktikatzeko aukerak eskaintzen ditu, lagun berriak ezagutu eta aisialdian euskaraz bizi daitekeela erakutsi digu.

2025ari, beraz, aurreko urteari beste eskatuko diogu. Urtean zehar egingo ditugun ekintzen bitartez, hainbeste urtetan osatutako sarea dantzan jartzea! Elkarrekin euskararen alde mugitzea! Herri mugimendu bat osatu nahi dugu, hizkuntza urraketen aurrean tinko eutsiko diona, egoera hau aldatu daitekeela sinisten duena, erabileran aurrerapausoak emateko prest dagoena. 2025ak Euskaraldia oparituko digu! Eta hori ez dugu alperrik galdu nahi. Konturatuko gara uste duguna baino gehiagotan euskaraz egiteko aukera daukagula. Euskaltzaleen mugimendua indartzeko tresna paregabea dugu Euskaraldia. Herri batzordeak euskararen inguruan hausnartu eta ekiteko gunea eskainiko digu, euskaltzaleak batzeko, aliantza berriak eraikitzeko. Euskaraldia erabili behar dugu! Euskaraz jolas gaitezen, bizi gaitezen!

Zer gehiago eskatuko diogu urteari? Urtea ez da maiatzean bukatuko, euskarak 365 egun dituelako!

AEK

Nahikoa da azken hilabeteetako berriak irakurtzea jakiteko euskararen kontrako jazarpena baino, euskaldunon eskubideen kontra ari dela legea ezartzen eta, ondorioz, gure kontra. Beraz, zentzuz jokatuz gero, amestu beharko genuke arau horiek bestelako helburuekin aplikatzen direla. Eta ez gara hasiko Calderon de la Barcaren hitzak zalantzan jartzen, baina ezin uka gaur egungo egiak iraganeko ametsak direla eta aurrerapausoak guk geuk eman ezean, ez dituela inork emango. Ez da inor agertuko gurea bezalako kolektibo txikituak mehatxu judizialetatik babesten, ezta galarazitako lekua aitortzen ere. Ez dugu, inola ere, plazer hori izango horretarako baten batek bere pribilegioei eta gogobetetasunari uko egin behar badie, behintzat. Orpoz orpo lan eginez besterik ez dugu lortuko kontuan har gaitzatela eta gure interesen alde ere erabakiak har ditzatela, berandu baino lehen jazarpena gelditu eta geldiarazteko. Hortaz, ametsa bete bidean, kolektiboaren parte garela sinetsi behar dugu; kolektiboa gu garela, ez beste inor.

AEKren misioaren barne betidanik egon da hiztun aktiboak sortzea. Horretan dihardugu jakin badakigulako eskualde honetan, Euskal Herri osoko beste txoko guztietan bezala, badagoela zokoratuta sentitu denik, bai hizkuntz-hautua egin duelako, bai hautu hori egiteko aukerarik ez duelako izan. Bada, gure partetik, lanean jarraituko dugu: gurera hurbiltzen den orori hizkuntza irakasten eta erakusten euskararen herrian badaudela arrazoiak gizarte benetan elebiduna eraikitzeko. Guztioi aukera berdinak ematen dizkion sozietateaz ari gara, nahiz eta ustezko bigarren mailako hizkera erabili. Horretarako, noski, jendea behar da: euskaldunak, euskaldungaiak eta aldeko jarrera proaktiboa demostratzen duten pertsonak. Azken finean, konponbideak denok biltzen gaitu, norbanakoengan hasten da eta komunitate oso batean du sostengua.

Erronkak argi, euskal herritar ia bi herenen eskubideak bermatzekotan, 2025. urteari gogoa eta elkarlana eskatzea beste aukerarik ez dugu. Helmuga hurbil ez dagoela badakigu, baina bidea ttipi-ttapa egin behar da batzuetan eta beste batzuetan korrika.

Bizarra Lepoan

Getxo euskaldunago batean amesten dugu: ehunka herritarren erabaki eta ekintzek milaka lagunen hizkuntza-ohituretan eragitea. Euskaraz bizi nahi dugunok, euskaraz jakin ez arren gizarte euskaldunago bat desio dutenek, agintariek, herriko elkarteek, ikasle, enpresari, langileek... Bakoitzak bere lekutik euskararen herria edukiz betetzea, edo behintzat kontzientzia linguistiko handiagoa daukan herri bat izatea. Nola liteke euskaraz egitea erosoa izatea batzuetan eta deserosoa besteetan, pertsona edo lekuaren arabera? Euskaraz eroso hitz egiten ikastea eskatuko genioke 2025ari.

Euskararen aurkako erasoak etengabe jasaten ditugun larrialdizko egoera honetan, euskaraz bizitzeko daukagun eskubidea defendatzera goaz. Horregatik bi eskaera ditugu. Alde batetik gure eskubideen urraketak salatzeko, indarrak antolatzeko eta inguruan eragiteko deia egiten diegu getxoztarrei euskaldunon eta euskaltzaleon plaza asketik. Horretarako, baliabide ezberdinak ditugu eskuragarri: sare sozialetan #euskarazbizigetxon erabilita edo Euskararen Telefonoa eta Elebide zerbitzua, esaterako). Bestalde, horren aurrean erantzukizun zuzena duten agenteei ausardia eskatu nahiko genieke, euskaldunon eskubideak errespetatu, defendatu eta bermatzeko.

Urte berezia izango da 2025a herriko euskalgintzarentzat: maiatzaren 15etik 25era Euskaraldiaren 4. edizioa ospatuko da. Denon artean, getxoztarron hizkuntza ohituretan eragin eta gizarte aktibazioa bultzatzeko ariketa kolektiboa egingo dugu. Norberak bere rola aukeratu eta goazen gure ingurua euskalduntzera! Gainera, Bizarra Lepoan euskara elkarteak datorren urtean 30 urte beteko ditu. 1995etik izaera, proiektu eta helburu ezberdinak izan arren, gure herrian euskaraz bizitzeko aukerak elikatzeari ekin diogu beti, eta horretan jarraitzen dugu. 2025ean, urtero lantzen ditugun proiektuez gain (Bapiruke, Toponimia ibilbideak, eskola barruko jostaldiak, Gehitu kultura eta kirola...), urtemuga ospatzeko egitaraua antolatzen gabiltza. Oraindik sekretupean mantendu nahi dugun sorpresatxoren bat izango dugu herrian gainera...

Betiko Ikastola



BETIKO
IKASTOLA

Gure ametsa da pertsona euskalduna, betiere barne sendotasuna duena. Zein koloretakoa margotuko zenuke Euskal Herri euskaldun bat? Gorria? Morea? Zuria? Horia?... Edo kolore guztiak, nahastean, pozik eta alai, elkarrekin bizitzeko eremu libre eta euskaldun bat sortu dutena?

Horregatik, Betiko Ikastolan gure ikasleak euskara eta euskal kultura eurena bezala erabili, maitatu eta bizitzea nahi dugu. Euskara izan dadila euren hautua: bizitzeko, ikasteko, jolasteko, dantzatzeko,maitatzeko... Eta euren etxekoekin partekatzeko.

Betiko Ikastolan Euskara dugu irakaskuntzaren ardatz, euskaraz bizi gara eta euskaraz bizi nahi dugu. Pertsona euskaldunak hezi nahi ditugu, euskara, kultura eta euskal identitatearekin konprometituak dauden eta egongo diren lagunak.

Euskara eta euskal kultura gure ezinbesteko osagaiak izanik, hauen zabalkundea ikastolako komunitate osoari dagokio. Hain zuzen ere, Betiko ikastola osatzen dugun familia handi honi.

Esan bezala, barne sendotasuna duten lagun euskaldunak ditugu amets. Betiko Ikastolako ikasleak euskaldun, aske eta zoriontsu haztea baino ez dugu nahi. Bakoitzak bere barruan duen jakinduria elikatu eta bere jakin-mina asetzeko prozesuan bidelagunak izan nahi dugu. Elkarrekin bidea egin eta elkarrengandik ikasi eta hazi.

Horretarako, ezinbestekoa izango da norberaren arlo emozionalari erreparatzea. Prozesu honetan pertsona oro ondo sentitu behar da bere buruarekin aurrera egiteko.

Hala, ziurtasuna sentitu behar du bere buruarengan. Bideaz disfrutatu. Jausteko prest egon, berriz altxatzeko. Jausten garen bakoitzean altxatzearen beldurrik izan gabe.

Nork bere aldetik, osatzen dugun talde sendoari bere ekarpena egin eta, era berean, taldearengandik on egiten digun guztia jasotzeko prestutasuna izan.

Bakoitzak berea eskaini, osatzen dugun talde anitza bezain aberatsa zaindu bakoitzaren nolakotasunari uko egin gabe. Gure inperfekzio perfektua zainduz.

Ander Deuna Ikastola

ander deuna
IKASTOLA

Biharko mundua
gaur eta hemen

Ander Deuna Ikastola 1968an sortu zen. Beste ikastola askotan gertatu bezala, ikasle, irakasle, guraso eta laguntzaileek ereindako haziak eta urte hauetan guztietan egindako ahaleginak fruitu oparoak eman ditu eta etorkizunean ere ematen jarrai dezala nahi dugu. Hasierako proiektuaren zutabe garrantzitsu bat euskara sustatzea izan zen eta, gaur egun ere, erronka horri eustea dugu helburu, euskal nortasunaren ardatz bilakatuz. Ikastolak gure hizkuntza ondare gisa transmititzeko konpromisoa hartzen jarraituko du, 2025erako, hori indartuz eta horretarako baliabideak abian jarriz: erabilera egunerokoan sendotu, horren ondorioz euskal hiztun konprometituak bermatuz eta pertsona euskaldun eta eleaniztunak heziz. Horrez gain, pantailen arnasgune izateko hautua egin eta, zaila bada ere, kultura digitalaren eta humanismoaren arteko harmonia lortzen gabiltzan honetan, ikasleek harreman zuzenak, aurrez aurreko elkarrizketak eta esperientzia hezitzaile analogikoak izateko espazioak babesten jarraitu nahi dugu, gu guztion bizitzan oreka eta kalitate emozional handiagoa bermatzeko asmoz. Jakina, ezin hori guzti hori gauzatu gure hezkuntza-proiektuan barneratuta dagoen natura zaintzeko konpromisorik gabe. Gure ingurunea ezagutzea, zaintzea eta berau babesteko ardura hartzea ezinbestekoak zaizkigu. Naturarekin harreman zuzena duten proiektuak eta ekintzak indartuz, ingurumenarekiko kontzientzia kritikoa sustatzen jarraituko dugu, belaunaldi berriek etorkizunean ere jasangarritasunean oinarritutako bizitzak eraiki ditzaten. Halaber, komunitate-sentimenduan oinarritutako hezkuntza ereiten dihardugu aniztasunari eta inklusioari behar bezala eutsiz. Gizarte kohesionatuago eta bidezkoago baten alde, gure ikasleek ingurukoekin eta beraien buruekin bakean bizitzeko gaitasunak garatu ditzaten lan egiten jarraitu nahi dugu, garapen pertsonalaren bidezidor horretan bide-lagun izango gaituztela beti. Zein da, beraz, gure guraria? Bada, Ander Deuna Ikastola izan denari eta egun denari ere eusteko aukera izaten jarraitzea; zera da, munduari begiratzeko modu eta etxe izaten jarraitzea.

Getxo Babes ofizialeko alokairua

Sarrikobasoko 68 BOEen esleipendunen zerrenda, argitaratuta

Algortako Maidagan eta Puerto de Orduña kaleen arteko orubean eraikitako alokairuzko babes orokorreko 68 etxebizitzen behin behineko esleipendunen zerrendak eta itxaron zerrendak argitaratu ditu Etxebidek. Sarrikobaso promozioko babes ofizialeko etxebizitza horiek Getxoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko akordioaren emaitza dira, eta, udal-ituriek nabarmendu dutenez, «udalerrian babes publikoko etxebizitzak sustatzeko administrazioen arteko lankidetzaren barruan kokatzen dira». Behin-behineko esleipendunen zerrendak eta itxaron zerrendak Etxebideren webgunean kontsulta daitezke daborduko. ◂

Getxo Euskalgintza

Euskaraz bizi ahal izateko eskubidea aldarrikatu dute

Getxon euskaraz bizitzeko eskubidea defendatzeko ekimena egin zuten Algortako Portu Zaharrean, abenduaren 1ean. Bertan grabatutako ekintza hilaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, zabaldu zuen bideoz Bizarra Lepoan euskara elkarteak, salatzeko udalerrian oraindino ez dela eskubide hori bermatzen, nahiz eta «hainbat legek babesten duten euskaraz bizitzeko dugun eskubidea». Performancean, gaur egun inguruotan euskaraz aritzeko ditugun zailtasunak irudikatu zituzten, besteak beste. ◂

Getxo Euskararen alde

Euskaltzale askoren aterpe izan da Fadura IgeriBiziren ekimenez

Swim Camp Getxo igeriketa elkarteak antolatuta, 500 euskaltzale inguru aritu dira igerian euskararen alde abenduaren 7-8an, 24 orduz, Fadurako igerilekuetan.

Aurtengoa bigarrena izan da, eta iazkoan bezala, 500 bat euskaltzale aritu dira IgeriBizi egitasmoan, 24 orduz euskararen alde igerian. Algortako Fadurako igerilekuetan aritu dira, abenduaren 7an eta 8an, eta batutako dirua, 2.565 euro, Bizarra Lepoan Getxoko euskara elkarteari eman diote donazioan.



Antolatzaileek zehaztu dutenez, 140 norbanako, 20 bat familia eta 20 elkartek parte hartu dute egitasmoan, iazko lasterketaren pare, aste-akabua «zaila» izan arren. Hala ere, nabarmendu dute parte-hartzea orekatuagoa izan zela orduz ordu, eta parte hartu zutenek «oso ondo» pasatu zutela ekimenean. Izan ere, hori lortzeko, igerian txandaka aritzeaz gainera, orduak dinamizatzeko hamaika jarduera antolatu zituen Swim Camp Getxo elkarteak, hala nola jokoak eta waterpolo entrenamenduak.

Aurrekoan legez, euskaraz bizi gura dutela aldarrikatzeko hurbildu ziren igerilariak, eta hori ahalbidetzeko elkarte bati eman diote aurten batutako diru guztia, Bizarra Lepoani, hain zuzen. Helburu horretarako, gainera, uretan txonbo egin ez zuten beste euskaltzale asko ere bertaratu zen Fadurara, hala nola giroa dinamizatzeko Oier Garamendi eta Haizea Larrosa musikariak eta Haizea Belasko eta Haritz Sanchez, baita Udalbatzako zenbait ordezkari ere, tartean, Amaia Agirre alkatea.

Antolatzaileek eskerrik beroena helarazi diete parte-hartzaile guztiei, eta aurtengo edizioak izandako babesari erantzunez, datorren urtean egitasmoa errepikatuko dutela iragarri dute. ◂



Erandio Bizikidetza-arazoak

Astrabuduarrak haserre daude Sonora diskotekagaz

Auzotarren pazientzia amaitu egin da eta neurriak exijitu dizkiote Erandioko Udalari, dantzalekuak inguruan sortzen dituen arazoak saihesteko.

Astrabuduan tentsioa areagotu egin da bizilagunen eta metro-geralekutik hurbil dagoen Sonora diskotekaren artean. Aste-akabuetako zikinkeriak, kale-zurrutak, segurtasun ezak eta zaratak auzotarren bizi-baldintzak kaltetzen dituztela salatu eta berehalako neurriak exijitu dituzte, hala nola poliziaren presentzia areagotzea eta dantzalekuaren ordutegia murriztea. Gauzak horrela, eta Sonora diskotekako arduradunen «interes falta» eta arazoagaz amaitzeko «Erandioko Udalaren ezintasunaren» aurrean, egoera salatzeko manifestazioa egin zuten azaroaren 29an.

Erandioko Udalak bizilagunen kezka aintzat hartu du, eta, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailagaz eta Ertzaintzagaz bildu ondoren, konpromisoa hartu du Erandioko Udaltzaingoaren kopurua gutxienez agente bi gehiagoz handitzeko; halaber, jarduketak maiztasun handiagoagaz egingo dituztela iragarri du. Alkateak adierazi du herritarren atsedenerako eskubidea eta diskotekaren jarduera ekonomikoa orekatu gura dituztela, eta nabarmendu du konponbideek erakundeen lankidetza eta neurri integralak behar dituela.



Azaroaren 29an, ehunka auzokide bildu ziren irtenbide bat exijitzeko. AAE

57
isun jarri zituzten kale-zurruta egiteagatik azaroaren 22an eta 23an Ertzaintzak eta Erandioko Udaltzaingoak egindako prebentzio-dispositiboan.

Diego Maestre Sonoraren jabearen esanetan, lokala ireki zuenetik hainbat neurri hartu dituzte inguruan duen eragina murrizteko, hala nola lokalaren kanpoaldean segurtasun-kamerak eta argiztapen-sistemak jartzea. *Ser* komunikabideari egindako adierazpenetan, Maestrek deitoratu du Erandioko Udalak proposamen batzuk atzera bota izana, besteak beste, kale-zurruta kontrolatzeko hesi bat jartzea: «Bere garaian, itxitura bat jarri genuen jendea kale-zurruta egiten zuenean kanpoan gera ez zedin, baina Udalak debekatu egin zuen». ◂



Leioa Gabonetako kanpaina

Gabonetan herrian kontsumitzera bultzatu gura dituzte leioaztarrak

Leioako Udalak tokiko saltokietan erosketak sustatzeko kanpaina berri bati ekin dio, «Leioako saltokietan denbora pasa» lelopean, ekonomiaren eragile eta erkidegoko enplegu-sortzaile gisa duen eginkizuna azpimarratuz. Ekimena Gabonetako kanpaina betean dator, hurbileko merkataritzaren aldeko apustua egitearen garrantziaz jabetzeko une garrantzitsuenetakoan, hain zuzen.



Kanpainaren barruan denbora-pasei buruzko aldizkari bat banatuko dute herritarren etxeetara, letra-zopak, sudokuak eta gurutzegramakaz. Tokiko establezimenduen erreferentziakaz diseinatutako jokoen helburua da hausnarketa modu atsegin eta sortzailean aktibatzea, arduradunek azaldu dutenez. Gainera, horregaz batera, panel interaktibo handiak jarriko dituzte udalerriko hainbat toki esanguratsuetan. ◂

Leioa Pilota

Hartzak Pilota Taldeak 25 urteurrena ospatuko du Sakonetan

Abenduaren 14an, zapatuan, Leioako Hartzak Pilota Taldeak bere mende laurdena ospatzeko jaialdia egingo du, 10:00etatik aurrera. Hala, goizetik jai-giroa izango da Sakonetako pilotalekuan, eta, urtemuga behar bezala ospatzeko, klubeko umeen, nesken eta mutilen eskuzko zein palazko partidak jokatuko dituzte: B txapelketako finala, Amagoiak eta Mariak Kanporen eta Aneren aurka jokatuko dute; eskolarteko lagunartekoa, Rodriguez II Hernandezen aurka izango da; lagun arteko ezker paretan, Astigarragaga II eta Landa II gorriz arituko dira Amiama eta Landa I urdinen aurka; eta, azkenik, A txapelketako finala Paulak eta Iratik Eleneren eta Olaztiren aurka. ◂



Pentsiodunen borrokak ez du etenik

Joan den azaroaren 10ean Uribe Kosta-Eskumaldeko Pentsiodunen Plataformak eskualde-mailako manifestazioa egin zuen Leioan. Beraien aldarrikapen nagusiagaz tinko jarraitzen dutela adierazi zuten beste behin ere: 1.080 euroko pentsioak. PENTSIODUNEN MUGIMENDUA



EUSKOFRIZ Bidfood

Gozatu Eguberriez gure produktu-familia berriarekin mahaian.

www.euskofriz.com

943 33 47 60
Kalea Utxa, 2B - Larrabetzu



Gorliz Aldaketa klimatikoa

Astondoko hondartzako hondakinak eskuz kenduko dituzte

Bizkaiko Foru Aldundiak eskuz garbitzeko ekimen pilotu bat abiatuko du inguru natural babestuetan dauden Bizkaiko lau hondartzatan: Laida eta Laga, Urdaibain; Arena, Zierbena; eta Astondoko duna-gunea, Gorlizen. Ekintza hori neguan garatuko dute, eta helburu du hareatza horiek klima-aldaketaren aurrean duten erresilientzia areagotzea, ekosistemak babestuz eta higaduraren eta itsas mailaren hazkundearen ondorioak arintzea. Hala, Aldundia substantzia antropikoak eskuz kentzen dihardu; besteak beste, plastikoak, obra-hondakinak, ehunak... Aldiz, adarrak, algak edo enborrak bezalako zati organikoak dauden moduan lagako dituzte, giza osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen elementuak izan ezik, esaterako, hildako animaliak. Azaldu dutenez, frogatuta dago hondakin naturalen metaketek hondartzako ekosistemak garatzen lagundu eta espezieen biodibertsitatea bultzatzen dutela; gainera, defentsa-elementuak dira olatuek eragindako higaduraren aurka, eta, ondorioz, klima-aldaketak eragindako itsas mailaren igoeraren aurka. Azaroko azken astean hasi ziren proba pilotuak egiten, neguan itsasaldiek itsasertzera eramaten dituzten hondakinak eskuz garbituz. ◂



Sopela Aurrekontu parte-hartzaileak

Zipiriñeren ondoan iturri bat jartzea hautatu dute auzokoek

Jasotako 576 proposamenetatik, 23 proiektu jarri dituzte aukeratzeko eta, horietatik, sei jarduera aukeratu dituzte; horiek 200.000 euroko finantzaketa izango dute.



Zipiriñe eskola. HODEI TORRES

Daborduko aukeratu dituzte 2024/2025erako Sopelako aurrekontu parte-hartzaileetako sei proiektuak. Honako hauek dira: iturri bat jartzea Zipiriñe eskolaren ondoan, hesiaren kanpoaldean, 5.000 eurogaz; Iturrieta parkean hobekuntzak egitea, Sopelako gazteen beharretara egokitzeko (kalistenia parkea osatzea, ping-pong mahaiak...), 50.000 euro; argiteria publikoa berritzea intentsitate txikiko LEDakaz, 50.000 euro; Kurtzioko gaztelekuan hobekuntzak egitea, gazteentzako eremua handituz, 40.000 euro; Akilino Arriolatik Zipiriñe eskolarako bidegorria osatzea, 5.000 euro; eta Sopelako Udalaren Zuhaizti Plana gauzatzea, 50.000 euro. Sei jarduera horiekaz, 200.000 euroko partidara iritsiko litzateke, 2024/2025 aurrekontu parte-hartzaileen prozesu honetan adostutako finantzaketa. Sopelako Udalak prozesua «gardena» eta «aberasgarria» izan dela nabarmendu du, eta udalerriko ikastetxeen parte-hartze handia azpimarratu du. Hemendik aurrera, sei hilean behin proiektuen jarraipena egingo dute, herritarrak jakinaren gainean egoteko. ◂





Urduliz Animalien inguruko auzia

PACMAk Kinttopeko Txapelketa salatu du Urdulizen

Abenduaren 5etik 8ra ospatu ziren Kinttopeko zaldi-proba ofizialak. Horren aurrean, alderdi animalistak bertan behera uzteko eskatu zuen, animaliak babesteko hainbat araudi urratzea ekar zezakeelakoan.

Urdulizko Udalak tradizio luzea duen Kinttopeko Txapelketa egin zuen abenduaren 5etik 8ra. Horren eraginez, Maria Lopezek, PACMA alderdi animalistaren Bizkaiko koordinatzaile probintzialak, salaketa idatzi bat aurkeztu zuen ekitaldia jazo baino lehenago hori bertan behera uztea eskatzeko. Ohartarazi duenez, jarduera horiek animaliak babesteko hainbat araudi urra ditzakete, horien artean, azaroaren 7ko 32/2007 Legea eta martxoaren 28ko 7/2023 Legea. «Albaitariek babestutako ebidentzia klinikoek adierazten dute ondorio fisiko eta psikologiko larriak dituztela horrelako probak egiten zaizkien animaliek, hala nola muskulu-hausturak, eroriko errepikatuen ondoriozko zauriak, estres maila handiak eta odoleko kortisol gehiegikeriak», nabarmendu du Lopezek. Horrez gain, deitoratu du horrelako gertaerek mezu okerra transmititzen dutela gizartean. Batez ere, adingabeengan, animaliak «denbora-pasarako tresna huts» gisa tratatuko dituztelako etorkizunean.



Zaldi-probak, Urdulizen, artxiboko irudia.

Urdulizko Udalak, bere aldetik, adierazi du Bizkaiko Foru Aldundiak eta Federazioak dutela gaiaren inguruko informazio guztia, eta legalki oztoporik ez badago, «Udalak ere ez ditu jarriko». Alabaina, orain arte, Udalak antolatu du lehiaketa klub bategaz batera, baina datorren urtetik aurrera ez du esku hartzerik izango horretan. ◂

Lemoiz Birizik dagoen herria

Abenduan ez dute aspertzeko unerik izango Lemoizen

Urteko hilabeterik magikoena heldu da gure eskualdera: abendua. Horregaz batera, Gabonak ate joka daude eta Lemoizko ume, gazte, heldu zein nagusiak horretarako prestatu dira. Hala, askotariko ekintzak antolatu dituzte herrian hurrengo asteotarako: abenduaren 15ean, domekan, haurrentzako zinema egongo da, Andrakako kultur gelan, 18:00etan; abenduaren 20an, barikuan, Olentzeroren etxera bisita egingo dute, 17:00etan; abenduaren 23tik urtarrilaren 3ra, negulekuak izango dituzte, goizeko 08:30etik 14:00etara; abenduaren 24ean, Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira auzoetatik egingo dute eta joaldunak eta antzerkia ere izango dute; abenduaren 29an, haurrentzako zinema izango dute, Armintzako kultur etxean, 18:00etan; abenduaren 31n, San Silvestre lasterketa ospatuko dute, Armintzan, 12:00etan; eta urtarrilaren 3an, Gabon parkeaz gozatuko dute umeek, Armintzako frontoian, 16:00etatik 20:00etara. ◂







Berango Proiektuen bila

Partaidetza bidezko aurrekontuen bigarren fasea abiatu dute

Irailean abiatutako 2025erako partaidetzazko aurrekontuen 1go fasean 233 pertsonek parte hartu eta 500 proposamen egin zituzten. Horietatik, Udalak 6 proiektu aukeratu ditu eta, orain, herritarrek horietatik guztietatik interesekoenak lehenetsi beharko dituzte, abenduaren 15a baino lehen. Horiek zeintzuk diren eta horien nondik norakoak udal-webgunean ikus daitezke.

Era berean, uztailean haur-udalekuetan egindako lan-saioen ondorioz, Udalak aurrekontu osoaren 10.000 euro bideratuko ditu hainbat ekintza zuzenean gauzatzeko, bozketa-prozesutik pasatu beharrik gabe, besteak beste, berdintasunaren aldeko film laburra eta mahai-inguruak egitea. ◂

Plentzia Tokiko kontsumoa sustatzeko

Plentzi & Shop kanpaina, martxan

Plentzi & Shop ekimenaren bosgarren edizioa jarri dute martxan, Gabonetako denboraldian tokiko merkataritza bultzatzeko helburuagaz. Aurten, harraskatu eta irabazi motako 25.000 txartel banatuko dituzte 10 eurorainoko opari-txartelakaz; gainera, 900 euroko balioa duten sarien zozketan parte hartzeko aukera ere egongo da.

Guztira 26 establezimendu atxiki dira 5.900 euroko aurrekontua izango duen urte honetako kanpainara. Horiek alfonbra eta kartel bereizgarrien bidez identifikatu ahal izango dira, eta horietan erosketak egiterakoan eskuratu ahal izango diren saritutako kupoiak abenduaren 31ra bitartean trukatu ahal izango dira.

Sarituak izan ez direnek, berriz, 2025eko urtarrilaren 5eko zozketan parte hartu ahal izango dute. Horretarako, txartelaren atzeko aldea bete eta Plentziako turismo bulegoan jarri duten postontzian utzi beharko dira.

Ekimena Plentziako Merkatari, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarteak Udalagaz, Bizkaidendagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz elkarlanean jarri dute martxan. ◂

Uribe Kosta Garraio publikoa

Abenduaren 13an eta 20an metro-zerbitzua egongo da gau osoan

Eguberrien aurreko bariku bietan, hau da, abenduaren 13an eta 20an, gau osoan ibiliko dira trenak, etenik gabe, Metro Bilbao garraio-enpresak jakinarazi duenez. Izan ere, Gabonen bezperako egun horietan enpresa edota kuadrilla bazkari zein afari ugari izaten dira hiriburuan, eta, zerbitzu horregaz, herritarren joan-etorriak erraztu gura dituzte. Hala, metro-zerbitzua etengabe arituko da barikutik domeka gauera arte aste-akabu bi horietan. ◂



Plentziako historia arakatuz

Goienkaleko 12-14 atariko barruko patioan egindako indusketak ez du aurkikuntza arkeologiko zuzenik erakutsi, baina lortutako datuek hiribilduaren hiri-garapena hobeto ulertzeko baliagarria izan da. Hipotesiaren arabera, eremua inguruko eraikin historiko bati lotutako lorategi bat izan zitekeen. Informazio guztia topa dezakezue www.hiruka.eus webgunean.

bai euskarari
irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

JUAN MARI
Harategia Urdaitegia
Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua
Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Uribe Kosta Gabonak, naturaz kontzientziatuz

Inguru Minguruko tailerrez gozatzeko aukera izango dute haurrek

Larrabasterrako Gatzarriñe kaleko 10. zenbakian kokatutako Ekogune lokalean, Uribe Kostako haurrek naturaz ikasten jarraitzeko aukera izango dute. Hala, abenduaren 30ean eta 31n, baita urtarrilaren 2an eta 3an ere, Inguru Minguruko tailerrez gozatu ahalko dute 8 urtetik gorakoek, 09:00etatik 13:00etara. Saio hauen helburua da ingurumenarekiko errespetua eta baliabide naturalen erabilera egokia sustatzea, baita hondakinen kudeaketa onaren inguruan informatzea ere. Ikastaro hauek doakoak izango dira, eta euskaraz, naturaren kontzientziazioa euskararen erabileragaz elkartzea baitu xede. Antolatzaileek adierazi dutenez, 2. txandarako plazak libre daude oraindino; hala, interesa duten lagunek izena eman dezakete ikastaroak@uribekosta.eus helbidean edo 946 579 280 zenbakian.



Saioak goizeko 09:00etatik 13:00etara izango dira.

EuskarAbentura espedizioa 2025

ZER DA?
EuskarAbenturak 2025eko uztailean zure inguruko txokoak ezagutzera eraman nahi zaitu: lagunak, bizipenak, euskara, abentura, kultura, historia, kirola, artea, uda!

NORENTZAT?
2008, 2009 eta 2010* urteetan jaiotako gazteentzat!
*aukera hau bakarrik Lapurdi, Baxe-nafarroa, Zuberoa eta diasporako gazteentzako

EPEMUGA
Izena emateko azken eguna: 2025eko martxoak 5
Hautatuen zerrendaren argitalpena: 2025eko apirilak 22

EuskarAbentura
Jzioqui dugu!

...honakoa aurkeztu behar duzu:
PROIEKTU BAT +
AURKEZPEN BIDEOA
Informazio gehiago:
@euskarabentura · #euskarabentura2025
www.euskarabentura.eus
izenematea@euskarabentura.eus

Babesleak
Laguntzaileak
Hedabideak



2024ak utzitako batzuk...

Askotarikoak izan dira 2024 honetan gure eskualdean jazotakoak; gertakari pozgarriak zein korapilatsuak, eraberritzeak eta garai berriak. HIRUKAtik, ahal izan dugun neurrian, bertan egoten saiatu gara, albiste guztiak taxuz jorratzeko eta zabaltzeko xedeagaz. Aukeraketa zaila izan arren, hona hemen, herriz herri, urteko berririk aipagarrienen laburpen bat.


TESTUAK: **HIRUKA** • ARGAZKIAK: **HODEI TORRES** ▶

Lehentasuna oinezkoei Goierri auzoan

Urtarrilaren hasieran eman zuen Barrikako Udalak Goierri auzoa berrurbanizatzeko proiektuaren berri; herritarren esku utzi zituzten planoak egun bitan eta obrak hilabete horren akabuan hasi zituzten; urriaren amaieran amaitutzat jo zituzten beharrak. Udalaren arabera, helburua zen ingurua oinezkoentzat egokitzea, «auzokoek Udalari egindako eskari batzuk horren bitartez asetzeko». Hala, oinezkoek lehentasuna dute orain Itxas Alde inguruko kale nagusian eta kale perpendikularrean.



BARRIKAKO UDALA



BERANGOKO UDALA

Genero-mapa osatu dute Berangon

Tokiko emakumeentzat horren seguruak ez diren eremuak detektatu ditu aurten Berangoko Udalak. Hainbat norbanakok eta eragilek helarazitako irizpideei helduta, teknikariek genero-mapa bat osatu dute. Guztira, 16 eremu identifikatu dituzte, hala nola Maisuaren parkea, eta horietan hautemandako arazoak konpontzeko neurriak hartuko ditu Udalak. «Honen bidez, seguruago sentitzeko emakumeek gizonek baino metro bat gehiago ere ez egitea nahi dugu», ondorioztatu du Adolfo Sangroniz zinegotziak.



Agur itsasadar zaharrari

Urte nahasia izan da Erandion: uholdeak Altzagan, Sonora diskotekagaz arazoak, kutsaduraren aurkako protestak... Itsasadarrean ere hainbat aldaketa izan dira, eta Bilbo eta Getxo lotuko dituen pasealekuaren lehen zantzuak agerikoak dira; horregaz batera, hainbat belaunaldiz martxan egon den Gasolinoaren desagerpena ere ikusi dugu aurten, daborduko desagertuta dagoen iragan industrialaren gizarteko azken oroigarrietako bat, hain zuzen ere.



«Irurak Bat» eta hirigintzaren auzia

Uribe Kostako udalerri handiena izanik askotariko gertaerak utzi ditu 2024ak Getxon. Hala ere, guztien artean hautsak gehien harrotu dituen auzia izan da Algortako Portu Zaharrerako bidean dagoen San Nikolas kaleko 11 zenbakian zegoen eta udal-babesa zuen «Irurak Bat» jauregitxoaren eraisketa luxuzko etxebizitzak egiteko. Eraikina lizentziarik gabe bota zuten, eta obra irregulartasunez beteta dagoela salatu dute eragile eta talde politiko askok. Oraindino zalantza asko daude gaiari lotuta.

Gorlizko hormek ohiukatzen dutena

Gorlizko hainbat eragile elkartasunean batu dira Areatza kaleko horma mezu aldarrikatzailez betetzeko. Hala, azaroaren 9an, irudien proiekzioa eta horma markatu zuten eta, azaroaren 16an, horma-irudiak kolorez bete zituzten. Hurrengo taldeek parte hartu zuten: Danontzat gaztetxeak, Gorlizko Euskara Taldeak, Plentzia-Gorliz Bizitzak Erdigunera taldeak, Ernaik, Sortuk, Ikamak, Uribe Kostako Jauzi Ekosozialak eta Presoen Aldeko Taldeak. Hona hemen talde-lanaren emaitza.





Avanzada estali dute behingoz

Asfaltozko laban batek bezala erdibitzen du Avanzadak Leioako erdigunea. Orain arte, milaka ibilgailuren joan-etorrien keak eta zaratak bizi-baldintza kaskarrak eragiten zizkien hainbat leioaztarri, eta askok sakonera handiagoko esku-hartzea exijitzen bazuten ere, egia da udalerriaren erdigunea ez dela berdina izango 2025eko udatik aurrera. Ikusteko dago itsasadarraren azpiko tunelak zer-nolako eragina izango duen eskualdeko trafiko zalapartatsu.



Herritarrak bat, Lurretik Hormara

Lemoizko herritarrek klariona artean margotzen pasatu zuten maiatzaren 25eko goiza. Izan ere, Urizarko frontoi irekian bildu ziren adin guztietako lagunak Lurretik Hormara pintura lehiaketan parte hartzeko: bizilagunek egindako marrazkien ideietatik abiatuta, herriko fatxada bat margotuko dute. Udalak jakinarazi duenez, Portugane kaleko fatxada izan da margotuko dutena, eta, momentuz, hori konpontzen ari dira. 2025eko lehenengo hiruhilekoan margotzea aurreikusten dute.



Txapeldunak eta eredugarriak

Amak dira, helduak eta errugbian jokatzen dute: Antzarrak Rugby Taldea dira. 2023an debutatu eta urte honetako martxoan Espainiako 3. Mater Series Txapelketa irabazi zuten, goi mailako taldeen aurka. 35 eta 56 urte arteko emakume talde bat baino askoz gehiago sortu dutela diote, «emakume-sare bat gara», hain zuzen ere, zelaiaren barruan zein kanpoan beti elkar laguntzeko eta lan egiteko prest baitaude. Kirol emaitzagatik ez ezik, zelaitik kanpo egindako kohesio eta elkartasun lan eredugarriagatik tarte hau merezi dute.

IGE

Sopelan, hezkuntzari bai!

Urte luzeko mobilizazioen ostean, Sopelako Iberre eta Zipiriñeko hezkuntza zentroak handituko dituzte. 250 lagunetik gora elkartu ziren apirilaren 19an egindako manifestazioan eta, apirilaren 24an, Ikasleen Guraso Elkarteak emozioz beteta jakinarazi zuen hezkuntza komunitateak proposatutako proiektua burutzea erabaki duela Hezkuntza Sailak. Hala, Sopelako Haur Hezkuntza Loroñon egongo da, Lehen Hezkuntza Zipiriñen eta DBH eta Batxilergoa Iberren, eraikina handitu ondoren.









Mecaner herriarentzat eta herriagaz borrokan

Stellantis multinazionalak Urdulizko Mecaner lantokia itxi eta 148 behargin kalean utzi ditu aurten; horren aurrean, Mecaner Herriarentzat alternatiba ekosoziala sortu dute hainbat eragilek. Xedea da ekoizpena eta lanpostuak berreskuratzea eta egingo den hori trantsizio ekosozialera bideratuta egotea. Horregaz batera, hiru azpi-helburu dituzte: fabrika jabego publikokoa izatea, gizartea aktibatzea trantsizio ekosozialaren aldeko giro bat sortzeko eta proposamen parte-hartzaile bat zabaltzea.



MECANER HERRIARENTZAT



Javier Martin

«Beste garai bateko bizimodua islatzeko balio dutelako dira niretzat garrantzitsuak»

Artxiboetan arakatuz eta jarraitzaileek bidaltzen dizkioten irudiei esker, Euskal Herriko argazki zaharren bilduma oparoa osatu du Javier Martin algortarrak, Return to Basque izenpean.

ANDER ZARRAGA ▶

Argazki zaharren zaletasunak eraman zion Javier Martini Return to Basque sare sozialetako kontua sortzera. Algortar honek 27.400 jarraitzaile eta Euskal Herriko 880 argazki zahar baino gehiago ditu bere Instagrameko kontuan. «Uste dut arrakasta izan duela gure iraganagaz identifikatzen gaituzten irudiak direlako; gure aitona-amonen bizimodua nolakoa zen irudikatzen laguntzen digute eta lotura emozionala sortzen du horrek», azaldu du.

Twitterreko bere kontu pertsonalean egin zituen hastapenak, aurkitzen zituen irudi zaharrak partekatzen. Jendearengan piztu zen interesa ikusita, horretarako berariaz sortu zuen kontua: Return to Basque. «Argazki politak aurkitzen nituenez, eta jendeak interesa zuela ikusita, partekatzea erabaki nuen, baina, azken finean, nire zaletasuna bideratzeko modu bat besterik ez zen».


Sareetan XIX. mende amaiera eta XX. mende erdira arteko irudiak argitaratzen ditu Martinek, «azken argazkiak 60ko hamarkadakoak dira eta jende askok idazten dit esaten beraiek ere hor izan zirela edo senideren bat azaltzen dela erretratuetan»; izan ere, berak sortutako bilduman baserri edo paisaiak azaldu arren, pertsonak agertzen diren irudiak dira gustukoen dituenak.

Bere argitalpenetako argazkilarien artean Indalecio Ojanguren goraipatzen du: «Euskal kulturaren defendatzailea izateaz gain, mendizalea ere bazen eta Bizkaiko zein Gipuzkoako hainbat bazterretako argazki-bilduma izugarria osatu zuen; berdin dio zein galduta dagoen toki hori, seguruenik Ojanguren bertan izan zela, eta, gainera, teknikoki ere oso ona den argazkia ere izango duela». Eulalia Abaituaren lana «aitzindaria» ere izan zela nabarmentzen du, bera izan baitzen lehen emakume argazkilarietako bat. Horiez gain, Policarpo Elosegui, Gerado Lopez de Guereñu eta Pascual Marin ere aurkitu daitezke bere bilduman.

Artxiboetan aurkitutako argazkiez gain, bere jarraitzaile askok irudi zaharrak bidaltzen dizkiote, «horri esker, azkenean lortu dut artxiboetako irudiakaz batera ezezagunak diren hainbat argazkilariren irudiak ere izatea; nolabait, argazki-bilduma kolektibo baten modukoa osatzen ari naiz», nabarmentzen du.

Bitxikeria bezala, kontatu du noizbait argazkiren bat igo duela eta norbaitek bere birraitona ezagutu duela edo erretratu baten bitartez familiakoak ziren baina elkar ezagutzen ez zuten pertsona bik elkar ezagutu dutela. ◀






Estibalitz Vazquez jarraitzaileak Return to Basque-ra bidalitako bere senideen argazkia: Markos, bere birraitona; Mari, amona; eta Anestasi, birramona, Sopelako Zaldu baserritik hurbil, 1940ko hamarkadan.




Urduliz, 1920ko hamarkadan. INDALECIO OJANGUREN. GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA



Plentziako Eleiz enparantza, 1920ko hamarkada. INDALECIO OJANGUREN. GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA



1942ko udako argazkia Sopelako hondartzan. ANDRES ZURIMENDI



Antonio Gaubeka Zabala (Anton Portu), Armintzako arrantzalea, 1932. INDALECIO OJANGUREN. GIPUZKOAKO ARTXIBO OROKORRA



Josu Zarate Kantuzalea

«Gabon-kanta berriak sortu behar ditugu herrian, egungo ikusmoldearekin»



NAHIA MARTINEZ GONDRA ▶

Gabon-kantak ezinbesteko elementuak dira Eguberrietan. Alabaina, zein izan da horien bilakaera? Zeintzuk ezagutzen ditugu? Letra eta doinu artean, Josu Zarate kantuzaleak geugaz partekatu du bere ikuspegia, *Din dan don*-etik haratago joateko asmoz.

Zeintzuk dira euskal gabon-kanten ezaugarri nagusiak? Hasteko, euskaraz direla eta Gabonen ingurukoak direla. Bestalde, azpimarratuko nuke kolektibotasuna aldarrikatzen dutela: familia; faltan botatzea kanpoan dagoena, *Hator Hator* kantaren kasuan ikusten den bezala. Gainera, aditzetan ere hori nabari da: *sortu zaigu, jaio zaigu, goazen denok*... horrelako aditzak beti pluralizatzaileak izaten dira kantetan, euskaran askotan gertatzen den bezala. Orokorrean horrela den arren, badago kantu bat horren guztiaren antitesia dena: *Dringilin Dron*. Bere letra aztertuz gero, honakoa dio: «Dringilin Dron, gaur gabon, sabela betea daukat eta besteak hor konpon». Justu-justu kolektibotasunaren kontrako mezua, eta nik esango nuke, Gabon espirituaren kontrakoa ere, kar-kar. Gauza bitxia da kantu horrena. Bestalde, orokorrean, jana, edana eta jai-giroa errepikatzen dira kantuetan. Aza esateko, Euskal Herrian oso ohikoa izan delako Gabonetako afarian aza jatea. Baita ardoa, patxarana, txerria, oiloa, bisigua eta okela ere. Bukolikotasun puntu bat ere dute abestiek, aipatzen dituztelako artzainak, mendiko giroak, ikatza... horiek izango lirateke, besteak beste, ezaugarri nagusiak.

Nolakoa izan da gabon-kanta horien bilakaera? Hasieran, nik uste dut erritu ukitu bat zutela kantek. Normalean, heldutasunera pasatzen zirenean gazteek egiten zuten erronda baserriz baserri eta etxez etxe kantuan. Agate Deunean, inauterietan, udako eta neguko solstizioetan egiten zen bezala. Pentsatzen dut momentu horretan erabiltzen zituzten doinuak gaur egun bertsolariek erabiltzen

Eman play!

Artikulu honetan aipatutako abestiak entzun gura badituzu, baita HIRUKAk gomendatutako beste hainbat deskubritu ere, eskaneatu goiko QR-a. Beste kantarik gomendatu gura baduzu, bidaliguzu mezua @hirukaeus Instagramera edo kazeta1@hiruka.eus emailera. Aberastu dezagun gure euskal gabon-kanten playlista!







Josu Zarate kantuzaleak baieztatu du berak «betiko» kantak abesten dituela.

dituzten doinuen antzekoak izango zirela: koplak edo bertsoak, alegia. Garai modernoagotara heltzean, Elizak eta abadeek parte hartu zuten gabon-kantetan. Hasi dira kantuak berreskuratzen, moldatzen, sortzen eta itzultzen, inkluso. *Zatozte Kristauak* Adeste Fidelesen abestia latinetik itzulita dago. XX. mendearen erdialdea pasata, Amerikako kantuetatik itzulitakoak hasi ziren, globalizazioaren eraginez. *Din Dan Don* famatua *Jingle Bells*etik dator, esaterako. Garai batean ere nazionalismoak bere ekarpena egin zuen, horrelako euskal bukolikotasuna bilatzen, lehen esan bezala. Bidasoa (Nafarroa) inguruan soilik ezagutzen zen Olentzeroren figura zabaldu zen Euskal Herri osora; hala, letretan Mari Domingi bezalako euskal pertsonaiak ere azaltzen hasi ziren.

Gaur egun

«Kantak egokitzen ari dira gaur egungo estilo eta baloreetara. Oso doinu modernoekin jolasten da, pop eta runbarekin, esaterako. Bideoklipak ere sartu dira eta ikusgarritasuna lehenesten da gehiago. Gainera, alde batera uzten ari gara kristautasuneko erreferentziak laikoagoak direnak aipatzeko»

Eta gaur egun nolakoak dira? Kantak egokitzen ari dira gaur egungo estilo eta baloreetara. Oso doinu modernoekin jolasten da, pop eta runbarekin, esaterako. Bideoklipak ere sartu dira, eta ikusgarritasuna lehenesten da gehiago. Gainera, alde batera uzten ari gara kristautasuneko erreferentziak, laikoagoak aipatzeko. Halere, betiko kolektibotasun eta elkartasun mezuak mantentzen dira. Orain, ohitura zaharrei ere erreferentzia egiten zaie, eta aitzinean zuten erritualtasuna galdu egin da. Bestalde, Olentzero eta Mari Domingi oso dotore irudikatzen ditugu, baina letretan baldarrak dira. Olentzero gizon zahar eta jatuna da; Mari Domingiri esaten zaio, «gurekin nahi baduzu Belena etorri, atera beharko duzu gona zahar hori».

Esango zenuke aniztasuna dagoela euskal gabon-kantuetan? Aniztasuna badago, bai. Herri bakoitzean gabon-kanta ezberdinak daude. Herrian ez dakizkigu besteenak, eta seguru aski ez ditugu zertan denak jakin behar. Bakoitzak mantendu ditzala bereak, eta herri bakoitzak berezitasun hori izango du.

Azkenik, ahaztuta dagoela sentitzen duzun Gabonetako euskal kantaren bat gomendatu gura duzu? Kaletarra naiz eta, beraz, faltan botatzen dut kanta gehiago ez jakitea, kar-kar. Dakizkidanak gehienok dakizkigunak izango dira. Menperatu eta kantatu, normalean, bada, betikoak. Gomendatuko nuke, esaterako, *Gabon Gabean*, musika eta letra aldetik oso bitxia delako. Oso gustukoa dudan beste bat, *Gabon Izarra* da. Nik batez ere gomendatuko nuke herrian herrikoak mantentzea: belaunaldiz belaunaldi berton egon diren Gabonetako abestiak, nahiz eta herritik kanpo ezagunak ez izan. Are gehiago, ahal bada, herrian kantu berriak sortu beharko genituzke, gaurko ikusmolde, alde estetiko eta musikalak kontuan hartuta. Modu horretan bermatuko dugu transmisioa ez etetea gauza berriekin. ◂





Abendua-urtarrila Gabonetako jarduerak

Eguberrietan aspertzeko aitz

Barrika

Abenduak 14, zapatua

Salaketa antzerki-dokumentala
19:00 | Emakumeen Hitza lokalean
¿Cuántas muertas son muchas?

Abenduak 15, domeka

IX. Argazki Digital Rallya
09:00 | Herri osoan
Lau gai, lau argazki; eman izena udal-webgunean.

Abenduak 23, astelehena

Olentzero eta Mari Domigi
18:00 | Udaletxeko plazan
Txokolatada ere egongo da.

Abenduak 28, zapatua

Magia ikuskizuna: Tor magoa
11:30 | Ander Deuna aretoan
Gertuko elkarteak antolatuta.

Berango

Abenduak 15, domeka

Gabonetako Artisau Azoka
12:00 | Pilotalekuan

Abenduren 21ean eta 22an

Gabonetako haur parkea
11:00-13:00/17:00-20:00 | Pilotalekuan

Abenduak 22, domeka

Euskal dantzen erakustaldia
12:00 | Berango Antzokian
Otxandategi Dantza Taldearen ikuskizuna.

Ikuskizuna: *Olentzeroren etxea. Baso magikoa*
17:00 | Berangoeta kultur etxean
Familia guztiarentzako ikuskizuna.

Urtarrilak 3, barikua

Gabonetako gazteen parkea
17:00-21:00 | Pilotalekuan
9 eta 16 urte arteko gazteentzat.

Urtarrilak 4, zapatua

Antzerkia: *Badator Erregeen Zirkua*
19:00 | Berango Antzokian

Urtarrilak 5, domeka

Errege Magoei harrera
19:00 | Kultur etxetik pilotalekuraino
Kalejira.

Erandio

Abenduak 21, zapatua

Erandio Sound
20:00 | Dathorren tabernan
Track Uno kultur elkarteak antolatuta.

Olentzero eta Mari Domingi
Abenduak 23, astelehena

17:30 | Kukularran
Puzgarriak, Kukularrako auzokideek antolatuta.

18:30 | Erandiogoikoan
Kalejira, Andra Mari elizatik abiatuta.

20:00 | Euskadi plazan
Xaiborren disko-festa.

18:30 | Lutxanan
Olentzeroren etorrera, Ikoeta parkean.

Abenduak 24, martitzena

17:00 | Faoetan
Olentzerori ongietorria.

17:30 | Merkatu Zaharrean
Harrera eta kalejira auzotik.

19:30 | Irailaren 23a plazan
Neguko solstizioaren ekitaldia, Gautxoriak Kultur Elkartearen eskutik.

17:30 | Astrabuduan
Ongietorria eta kalejira.

18:30 | Mendiguren plazan
Trabudu Dantzari Taldearen erakustaldia.

Abenduaren 24tik 30era

Txu-txu trena
11:00-14:00/17:00-20:00 | Santi Brouarden

Abenduak 27, barikua

Erandioko bertso-jira musikatua
20:30 | Estrella tabernatik abiatuta
Imanol Uria eta Sustrai Colina bertsolariakaz.

Urtarrilak 5, domeka

Errege Magoei harrera
18:00 | Altzagan
Kabalgata, txokolatada, photocall eta kontzertua.

Getxo

Abenduaren 20tik urtarrilaren 6ra

Getxolandia
11:00-14:30/17:00-21:00 | Xake plazan
Umeen Gabonetako parkea.

Abenduak 23, astelehena

Olentzero eta Mari Domingi
17.00 | Malakaten
Jolasak, eskulanak, musika...

17:30 | San Jose elizako arkupean
Puzgarriak ere egongo dira Santa Eugenian.

18:30 | Areetako Eskoletako plazan
Umeentzako antzerkia.

19:00 | San Nikolas plazan
Ume bertsolarien saioa eta taberna ibiltaria.

Abenduak 24, martitzena

Olentzero eta Mari Domingi
10:30 | Areetako Eskoletako plazan
Harrera Bizkaia Zubian.

17.00 | Algortan
Kalejira Venancioko bidegurutzetik aterata.

17:00 | Andra Mariko kiroldegian
Kalejira: fanfarrea, txistulariak, gaztaina erreak...

17:30 | Santa Eugenia plazan
Kalejira dantzakaz eta Gabonetako kantakaz.

18:30 | Areetako Eskoletako plazan
Kalejira txistulari eta trikitilariekin, eta Berantzagi taldearen saioa.

Abenduak 26, eguena

Abian Kultur Elkarteko bertso-poteoa
20.00 | Triku tabernatik hasita
Inazio Vidal eta Jon Maia bertsolariakaz.

Urtarrilak 5, domeka

Erregeen desfilea
17:30 | Andra Maritik aterata
Andra Mari-Algorta-Itzubaltzeta/Romo.

Gorliz

Abenduak 24, martitzena

Antzerkia: *Olentzero eta Mari Domingi*
18:30 | Elizako plazan
Aratz Dantza Taldeak antolatuta.

Abenduak 28, zapatua

Umeentzako puzgarriak
11:00 | Frontoian

Leioa

Abenduak 24, martitzena

Olentzero eta Mari Domingi Eguna
17:00 | Kalejira Elexalde errotatik
Kalejira egingo dute Kultur Leioaraino.

17:30 | Itzubaltzeta/Romo eta Pinuetan
17:30 | Pinuetan
18:00 | Txorierrin

Abenduak 31, martitzena

Kanpai Txiki
11:30 | Errekalde plazan

Urtarrilaren 3, 4 eta 5ean

Gabonetako tailerrak
11:00-14:00/17:00-20:00 | Kandelazubietan
5ean goizez bakarrik.

Urtarrilak 3, barikua

Txotxongiloak: *De fabula*
12:30 | Kandelazubietan

Antzerkia: *Pirata Garrapataren abenturak*
18:30 | Kandelazubietan

akiarik ez

Ohikoa den legez, urteko sasoi honetan hainbat ekintza antolatzen dira nonahi. Guk eskualdeko udalerrietan egingo diren jardueren aukeraketa bat dakarkizuegu.

Urtarrilak 4, zapatua
Antzerkia: *Buala*
12:30 | Kandelazubietan
Antzerkia: *Magia*
18:30 | Kandelazubietan

Urtarrilak 5, domeka
Antzerkia: *Organik*
12:30 | Kandelazubietan

Urtarrilak 5, domeka
Errege Magoak
18:00 | Kultur Leioan
18:00 | Lamiakoko nagusien etxean

Lemoiz

Abenduak 24, martitzena
Olentzero bezpera
Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira auzoetatik, joaldunak eta antzerkiak lagunduta.

Abenduak 31, martitzena
San Silvestre lasterketa
12:00 | Armintza

Urtarrilak 3, barikua
Gabon parkea
16:00 | Armintzako frontoian



Plentzia

Abenduak 20, barikua
Gabon kantak Plentzian
19:00 | Eleiz enparantzatik hasita
Kalejira egingo dute herritar guztientzako.

Abenduak 22, domeka
Artisau Azoka
10:30 | Ontziola plazan

Abenduak 24, martitzena
Antzerkia: *Olentzero eta Mari Domingi*
19:00 | Eleiz enparantzan
17:45ean txokolatada eta kalejira herritik, Eleiz enparantzaraino.

Abenduren 26tik 28ra
Gabonetako parkea
10:30-13:30/17:30-20:30 | Jai Alai frontoian
Adin guztietako umeentzako jarduerak.

Sopela

Abenduak 22, domeka
Antzerkia: *Olentzeroren bila*
18:00 | Kurtzio kultur etxean
Magiaz betetako umeentzako antzerkia.

Abenduak 24, martitzena
Olentzero eta Mari Domingi
17:00 | Kalejira Larrabasterratik aterata
Udaletxeko plazan egingo diete harrera.

Abenduaren 27, 28 eta 29an
Gabonetako Parkea
11:00-14:00/17:00-20:00 | Urko kiroldegian
Edukiera mugatua izango du.

Urtarrilak 3, barikua
Antzerkia: *eMcumeak*
20:00 | Kurtzio kultur etxean
Itxaso Payak eta Maria Rivero sortzaileen obra.

Urtarrilak 5, domeka
Errege Magoen kabalgata
18:00 | Larrabasterratik udaletxeraino



Urduliz

Abenduak 24, martitzena
Olentzero eta Mari Domingi
17:00 | Mecanerreko aparkalekutik udaletxeraino

Abenduaren 26, 27 eta 28
Gabonetako parkea
16:30-20:30 | Iparralde kiroldegian
Puzgarriak eta tailerrak umeentzako.

Abenduak 29, domeka
7. San Silvestre lasterketa
10:00 | Antsonekoa plazan
Herrikoia eta solidarioa.

Antzerkia: *Azken Eguzkilorea*
17:30 | Antsonekoa plazan
Publiko guztientzako antzerkia.





Mari Domingiri eskutitza



JANIRE ENZUNZA LANDA Filologoa eta irakaslea

Mari Domingi maitea:

Gabonak atzera be heltzear daukaguzan honetan, eskutitza idaztea erabagi dot, datorren urterako zer gurako neuken eskatzeko. Eta, egia esan, oraingoan ez dot arbolapean ezer gura, ez dot opari materialik gura; izan be, uste dot bestelako kontu batzuek gehiago poztuko nabela.

Batetik, neure egunerokoan maitasun eta lasaitasun handiagoak euki gurako neukez. Ahal dan heinean, trankilago bizi, pentsateko denpora gehiago euki, eta gura dodazanakaz maitasuna emon eta jasoteko kalidadezko tarte gehiago eskaini. Ez gaizala egunerokoak eroan; ikasi daigun gehiago egoten eta ez horrenbeste egiten. Sentimenduak igarri eta alkarbanatu.

Bestetik, zeu be andrazkoa izanda, ulertuko dozu oraindino bide luzea daukagula hainbat gizonek geure eskubideak errespetateko. Arazoaren ondorio potoloak baino ez dodaz entzuten komunikabideetan; beharbada aproposa litzateke etxeetan iceberg matxistaren irudia banatzea, gizarteak ikasi daian noiz sortzen dan arazoa, eta zuztarretatik benetan zeozer konpondu.

Nire aldetik, urteari ahal izan dodan onena emon deutsat, eta espero dot ereindakoaren haziak irautea.

Besterik ez. Gabon onak pasau, eta besarkada bat.

Zuretzat



GORKA MOSTAJO GALDUROZ Gizarte-langilea

Ohiko denboraz jaso dut zutabe hau idazteko proposamena, eta, betiko lez, baiezkoa eman dut. Asteburu luzea egitera behartzen gaituzten honetan, zer idatzi bueltaka ibili naiz; otu zait Aner Peritzen bertsoaz hitz egitea, bere ausardiaz eta gaur egungo askatasunez, zeintzuetan oraindik sakondu beharra dagoen. Ideia hori bere aitak (X. Euzkitzek) izan ez zuen askatasunarekin erkatu dut eta zelan, gaur egun, euskal kulturako kulturgileengan oraindik presio handiegia dagoen ezker abertzalearen zenbait sektoretatik. Banituen beste hainbat ideia: Sarasuak esandakoak, Euskararen Eguna, Getxoko Udalaren euskararekiko konpromiso irmoa edota zinegotzi kargua hartu berritan sortutako ideiak, baina, azkenean, Peritzena bota diot estimatzen dudan lagun bati, gainbegira dezan. Momentu horretan, oroitu dut Iñaki. Iñakik beti gainbegiratzen zizkidan zutabeak eta, zinegotzi hautagaitza proposatu zidatenean, animatu ninduen. Algortan aisialdiko giro euskaldun eta abertzalean denbora eta ezagutza eskaini zizkigun hainbat gazte dantzariri. Politika, euskara, kultura... Zutabe honen atzean beti egon zara eta, beraz, ezinbestean zuretzat da zutabe hau, Iñaki. Astelehen hartatik ia bi urte igaro arren, zure itzala luzea da oraindik. Maite zaitugu!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Hotza abisurik gabe heldu da eta oraindino ez duzu armairutik udako arropa atera. Noiz egingo duzu aldaketa, bada?



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zure lagunengandik deskonektatuta sentitzen zara. Inoiz ez da berandu adiskide berriak egiteko eta eremu seguruak eraikitzeko.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Egunean zehar pozik egon arren, amesgaiztoak dituzu azken asteetan. Ez duzu ikusi gura, baina kontu hori eragina izaten ari da zugan.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Zure gorputza bakarra eta baliozkoa da. Gabon hauetan disfrutatu janaz eta eman maitasuna zeure buruari.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Intentsitate maila jaistea komeni zaizu: azken boladan, zure bizitzak komedia erromantiko estatubatuar bat dirudi-eta.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Urte berria zoragarria izango da, zure distirak ez du parekorik. Adi ibili seinale ezkutuetara, bidea erakutsiko dizute.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Zintzoa izanez ezin daiteke ezer txarto atera. (Berez, bai, baina gezurretan ibiltzea estresagarriagoa da).



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Euskaraz irakurtzea faltan duzu, baina beti jotzen duzu gaztelaniara azkenean. Joan liburutegira eta gozatu gure literaturaz!



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Urtero bezala, hasi zara urtarriletik aurrera jarraitu gura dituzun helburuak pentsatzen. Esaten den moduan, ez da ogirik neke gaberik!



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Nahiz eta sentimenduak azaleratzea zure indargunea ez izan, ezin hobeto egiten ari zara. Urte honek gauza politak gordetzen ditu zuretzako.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Hainbeste lan-elkarrizketaren ostean, azkenean, deitu zaituzte; zorionak, lagun! Orain, aprobetxatu zure azken askatasun egunak.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)


Gabonetan magia egiteko aukera izango duzu zure lagunez inguratuta. Kandelak, hostoak eta zuon energia... Azpikeriarako prest?



Idatziozu gutuna Olentzerori!

Kaixo, Olentzero eta Mari Domingi





Olentzero eta Mari Domingiren borda


Basoko bidea, 24
Euskal Herria


MUNDU OSOKO
IZAKI MIRAGARRIAK
BITXIKERIZ ETA EMOZIOZ BLAI!















IBAIZABAL
www.ibaizabal.com

Gaueko munstroak

Misteriotsua zen denda txiki ilun hura. Kattinen etxebizitzaren aurreko espaloiko denda bakarra zen, tabernarik ere ez zegoen inguruan. Mostradorearen atzean andre bat atzera-aurrera ibiltzen zen, zereginetan beti, nahiz eta ez zuen ia bezerorik. Zer egiten ote zuen andre hark?

Kattini jakin-min handia pizten zioten andreak eta dendak, eta ohera joan aurretik, pentsatzen ematen zuen denbora ea biharamunean ausartuko ote zen sartzera. Ohean sartutakoan, ostera, beste kezkabide bat izaten zuen: azken asteetako munstroak. Gauerdian, munstroren bat agertzen zitzaion, ia beti desberdina. Gau hartan berriro beldurtuta itzartu zen, munstroren batek ezkerreko eskuan haginka egin zion. Begiak zabaldu eta hiru begiko munstro txiki hori bat ikusi zuen, barreka. «Ai!» esan zuen Kattinek, eta arin-arin edredoi pean gorde zen.

Denboraren poderioz ikasi zuen munstroek alde egiten zutela bera edredoi azpian gordez gero. Apur bat tontorrak ziren munstroak, baina beldurgarriak ere bai. Harrigarriena zera zen haginka egin eta hurrengo egunean ez zuela izaten azalean batere arrastorik. Gurasoek munstroak ez zirela existitzen esaten zioten, eta Kattinek, berriz, bere kolkorako esaten zuen ez zirela sartuko gurasoen geletara, noski.

Hurrengo eguneko arratsaldean, ordenagailuan jolas baterako programazio bat egiten zebilela, bat-batean pantaila belztu zen. «Kaka!», ordenagailua matxuratu zitzaion. Beraz, beldurrari aurre egin eta aurreko denda zahar hartara eroan zuen.

–Kaixo, arratsalde on –esan zuen Kattinek ordenagailua mostradorearen gainean ipinitakoan–.

Ez zion inork erantzun. Informatika denda batean baino ordenagailu gehiago zegoen han. Denak zaharrak, askoren karkasa oso horituta zegoen. Aspaldi-aspaldikoak izan behar zuten, Kattin jaio baino lehenagokoak. Liluratuta zegoen. Museo bat zirudien.

–Nor da? –ahots urratuarekin zakar galdetu zuen andreak–.

–Neu, Kattin –mostradoreko ordenagailuaren atzetik–.

–Ez zaitut ikusten! –esan zion haserre andreak–.

–Ordenagailuaren ostean nago, mostradorearen beste aldean. Apurtuta dago. Konponduko diguzu, mesedez?

–Bai, etorri gaur zortzi.

«Gaur zortzi?», «Zer izango ote da gaur zortzi?». Gurasoei galdetuko zien.

Munstroak gauero itzartu zuten, eta gauero susto bat, eta edredoi pean gorde behar. Ez zen herriko bakarra. Munstroen dantza etxe guztietan zebilen zabalduta. Lagunak ere ikaratuta zebiltzan, baina Kattinek edredoi pean gordetzeko esan zienetik, beldurtuta baino ez.

Astebetera joan zen dendara, gurasoek esan zioten-eta «gaur zortzi» astebetea zela.

Dendan sartu, «kaixo» esan eta erantzunik ez. Luze egon zen ordenagailu horituei begira, banan-banan aztertu zituen eta konturatu orduko mostradorearen barrualdean zegoen. Isil-misilka barrura jo eta ezkutatu egin zen. Andrea bat-batean agertu zen:

–Ene badatxua! Zenbat daude, ba! Antza, ez dut amatatu inprimagailua!

Gero haiekaz berbetan ere ikusi zuen andrea, eta munstroak ijiji eta ajaja: planak egiten zebiltzan gauerako, nora jo eta zelan ikaratu umeak. Aho bete hagin entzun zien Kattinek.

Biharamunean dendara sartu zen, kementsu eta apur bat haserre.



ILUSTRAZIOA:
ALEX ORBE

–Kaixo, ordenagailuaren bila etorri naiz.

–Hemen daukazu, aiba, 50 euro dira –eta ordenagailua mostradore gainean utzi zuen.

–Eutsi dirua. Zeugaz gura dut berba egin.

–Zer? Nork eta umemoko batek zeozer esan behar dit niri? Marka da, gero! –esan zion zakar–.

–Ikusi zaitut. Ikusi zaitut munstroak inprimagailuan egiten. Ez zenuke horrelakorik egin behar.

–Lotsabako! Zuk esango didazu niri zer egin behar dudan.

–Herriko umeak beldurtuta dauzkazu!

–Eta? Horretarako egiten ditut. Zuok ikaratzeko! Barrabasok!

–Gu?

–Bai, zuok kakanarruok! Txikitan umeek barre egiten zidaten eta zin egin nuen handitan neuk ikaratuko nituela umeak.

–Baina ume haiek orain helduak dira.

–Bai, hondinokarren ezin izan dut asmatu nagusiak ikaratzeko munstrorik, eta zuokin nabil. Kar-kar-kar.

–Baina, baina...

–Bainak ortuan.

–Nahi baduzu, nik lagunduko dizut.

–Zuk? Bai, zera!

–Bai, abila naiz informatikan.

–Eta?

–Ba, hasiko gara munstro barregarriak egiten umeentzat, gauean amets goxoak izan ditzaten.

–Nik beldurgarriak egin nahi ditut.

–Bai, bai, aurrerago asmatuko dugu bion artean helduentzako munstroak zelan egin. Konforme?

–Ondo, konforme.

Lagun egin ziren, eta helduentzako munstroak ere asmatu zituzten, helduak ikaratzeko, jijiji.



Iratxe Ormatza Imatz

Bakiotik Ingalaterraraino egin nuen buelta, soziologia ikasteko, York eta Kenteko unibertsitateetan. Errealitateari buruzko azterketa hotzak alde batera utzi eta sormenari heldu nion. Hainbat kontakizun kaleratu dut helduentzat, Idatz&Mintz-en batez ere. Iaz, ***Printzak begietan*** ipuinliburua argitaratu nuen, XX. mendeko emakume euskaldunen bizipen, nahi eta ezinei buruzko fikzioa. HIRUKAko hau, berriz, umeentzat kaleratutako zazpigarren ipuina da. Ea alabari bezainbeste gustatzen zaizuen.



SOLUZIOAK:


AURREKO SOLUZIOAK

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

Gabonetako dominoa

Osatu lauki zuriak domino zati hau zuzena izan dadin.




Karraska

	I			D	
R					A
	A	R		M	D
	D		A	R	
A					M
	M			A	

Hona hemen bi sagu karraskari sinpatiko: Galder eta Maider. Bakoitzak sudoku bana du, baina bakarren batek hizkiak ezabatu dizkie (beharbada beste saguren batek jan ditu karraska). Orain zuri dagokizu bi sudokuak behar den bezala osatzea. Goiko sudokua Galderrena da (G, A, L, D, E eta R hizkiak ditu), eta behekoa Maiderrena (M, A, I, D, E eta R). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	G	D		R	
R		L		A	
		R	A	G	
	A	E	L		R
	R			L	A
D	L	A		E	




MAIDER

GALDER

Itzalak

Lotu zuhaitz bakoitzari bere itzala. Bide batez, margotu zuhaitzak horiz, berdez, laranjaz, marroiez, gorriz...




Hamaika

Beheko irudi hauek ez dira guztiz berdinak. Erreparatu ongi eta bien arteko aldeak ikusiko dituzu: hamaika dira guztira.



Zenbatu

Hemengo saguak erabat lotsagabetuta daude, ezta? Hamelingo txirulariari deitu aurretik, zehazki zenbat diren jakin beharko genuke. Hortaz, zenbatu itzazu, mesedez. Eta, ondoren, koloreztatu irudi osoa, artista bikaina zara eta.






Mezu gordea

Eman irudi bakoitzari dagokion hizkia eta Imanol Urbietaren abesti polit bat agertuko zaizu. Hizki-marrazki alfabetoa erabilgarri izango zaizu horretarako.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA





GETXO

Gabon magikoak,
opari paregabeak

Navidades mágicas,
regalos únicos

Atxikitako establezimenduen zerrenda.
Listado de establecimientos adheridos.


Getxo bizi ezazu

Getxon daukazu!

hirukalagunen txokoa

Urteari hasiera ema

Uribekostarren ekarpenari esker egin du bidea HIRUKA komunikazio-taldeak, eta halaxe egingo du hemendik aurrera ere.
Egin zaitez HIRUKAlagun eta beheko produktuen zozketan parte hartu ahal izango duzu; eta daborduko baldin bazara, lerroon alboko argibideei jarraitu besterik ez daukazu!




H.P. Lovecraft

Euskal mitologia, erromatarren historia eta misterioen kontakizun interaktiboa.



Butroeko Uso Ero

Izu psikologikoa, poesia eta umorerik jatorrena ezkutatzen du liburu honek.



Euskal mandalak

Euskal mandalak irakurtzeko eta koloreztatzeko munduko lehenengo liburua.



Alfajores Brutales

Algortan egindako alfajore txundigarriak. Sei alfajore dituen pakete dastagarri bi.



La Latxaren produktuak

Gazta, ardo, garagardo eta elikagai ezin hobeak eskuratzeko saski izugarria.




Go!azen 11 ikuskizuna

Urtarrilaren 12an, 19:00etan, Muxikebarrin. Hasi dantzatzen!

teko, parte hartu!

Zozketa bakoitzaren inguruko informazio gehiago HIRUKA.EUS webgunean topa dezakezue.

Beheko sariren bat lortzeko zozketan parte hartu gura baduzu, eman ezazu izena HIRUKA.EUS webguneko zozketen atalean urtarrilaren 5a (domeka) baino lehenago. Zozketa bakoitzeko atal bana egongo da; eman izena dagokion lekuan.




Asmatutako izakien bilduma

Ilustratutako 50 mikroipuin zoragarri; zure sormena sustatzeko bilduma bisuala.



Ibaizabalen liburuak

Bilduma bereko *Mamuak, Ogroak, Herensugeak* eta *Munstroak* liburuak.



Animalia bat egunean

Ibaizabalen liburu berezia. 365 animalia eta bat gehiago, urtebetean denak ezagutzeko.



Heisenberg antzezlana

Urtarrilaren 25ean, 20:00etan, Muxikebarrin. Galduko duzu?



Errigora kutxak

Gabonetako Errigora kutxa bi maite dituzun lagunakaz partekatzeko.



Abereen liburuak

Ibaizabalen bilduma bereko liburu bi: *Baserriko abereak* eta *Animalia basatiak!*

Gabonak gustatzen zaizkizu? Zergatik?



EVA PEREA
PLENTZIA

Ez. Txikitatik tristura sentitu dut Gabonetan, jende nagusia desagertzen joaten zela ikusten nuelako. Gainera, ez ditut opariak eta Gabonetako argiak gustuko. Nahiago dut naturara eta paseatzera joatea, kar-kar. Hala ere, familiagaz elkartzean naizenean oso ondo pasatzen dut, azkenean.



CRISTINA ELLACURIA
PLENTZIA

Oso Gabonzalea naiz, asko gustuko ditut. Neba-ahizpa guztiak elkartzen gara, familia osoa, baita familiarik ez duen lagunen bat ere. Horrela, Eguberrian eta urtezaharrean batera afaltzen dugu. Ostean, gabon-kantak abesten ditugu guztiok batera. Gabon-ospakizun tradizionala egiten dugu.



PABLO HERRERO
GORLIZ

Gabonek apur bat triste jartzen naute. Baina koinatakaz ospatzen dut tradizioa mantentzeagatik. Eguberria, urtezaharra eta Erregen Eguna ospatzen dugu batera bazkaltzen. Afariak ez ditugu egiten kotxea ez hartzearren. Baina nire alabak txikiak zirenean beste alaitasun bat zegoen etxean Gabonetan.



ARKAITZ ZURBANO
ARMINTZA

Gabonzalea naiz, bai. Bi ume ditut eta haien ilusioa ikusten dut. Gainera, jende dena pozik egoten da. Urte osoan bizitzen ez ditugun momentu onak gozatzen ditugu. Arreba bat daukat eta gure artean antolatzen gara gurasoak bakarrik ez uzteko. Nire emaztea Leongoa da eta horra ere joaten gara.



SARA BUENO GUTIERREZ
GORLIZ

Gabonak gustuko ditut, bai. Umeentzako diren festak direla uste dut. Polita da elurrarengatik, Gabonetako kantengatik, oporrengatik, kaleetan dagoen giroagatik... Familia osoagaz ospatzen ditugu, nire amaren eta aitaren partetik. Bazkari eta afari handiak egiten ditugu, Eguberrian eta urtezaharrean.



ALBERTO ERRAZTI IGARTUA
ARRASATE

Batzen garen bitartean, bai. Ohitura hori Estatu Batuetan galtzen ari da, adibidez, bakoitza bere kontuetara dagoelako. Batzuetan koinatu aspergarri horregaz egotea ere komeni da noizbehinka, bestela ez gaudelako sekula batera. Beste arlo bat da oparien eta turroien kontua, helburua salmenta dela.



MARI CARMEN TXINTXURRETA
DURANGO

Niri Gabonak asko gustatzen zaizkit. Uste dut oso modu tradizionalean ospatzen ditugula familian: jan eta jan, egon, elkartu. Nire aitak ia 96 urte ditu eta 6 urteko bilobatxo bat ere dugu. Beraz, elkartzen gara eta betikoa egiten dugu. Argiak ere gustuko ditut, gehiegikeriarik gabe, hori bai.



ESTEBAN FERRES ANGUIANO
BILBO

Ez, ez ditut bat ere ez gustuko. Eskas ospatzen ditut Gabonak, familia gutxi dudalako. Uste dut jendea beti doala irribarre batekaz, baina dena da faltsua. Gaztea nintzenean gustuko nituen, baina, gaur egun, ez, gezurra da guztia. Bilboko Gabonetako argiak asko gustuko ditut, hala ere.

ABENDUAREN 10ETIK 26RA

DEL 10 AL 26 DE DICIEMBRE

Sariak ALGORTAKO DENDAK GABONETAN

Osatu zure pasaportea eta lortu **OPARI BAT*** eta **2.000 EURO** inguruko balioa duen saskiaren zozketan parte hartuko duzu.

Completa tu pasaporte y consigue un **REGALO DIRECTO*** y participarás en el sorteo de una cesta de productos por valor de cerca de **2.000 EUROS.**

*Izakinak agortu arte. Hasta fin de existencias.

PARTE-HARTZAILEAK | PARTICIPANTES

- Algorta Centro Veterinario
- Amets
- Arreglos Lazos
- Bea Moda y Complementos
- Belarri`s
- Berezi
- BHU Getxo
- Boutique de la Fruta
- Calzados Vito 52
- Cerebrito Pérez
- Charcutería Alemana Prost
- Clin. Dental Eguizabal Puebla
- Croissanterie Getxo
- Depilea
- Estimua, Espacio de Bienestar
- Ferretería Elorri
- Flor de Awita
- Flores Arantza
- Foto Ricardo
- Fresa Decoración
- Galata Tejidos Artesanales
- Gaurko
- Generali Seguros Algorta
- Hezetasuna
- Iñaki Bi
- Irati
- Irayle Oinetakoak
- Izargi Burdindegia
- Kala
- La Latxa
- La Tati
- La Trastienda de Kukumiku
- Laura Jiménez Cent. de Estética
- Le Vernis
- Librería Itxas-ikus
- Librería Zugatzarte Regalos
- Lindau Tejidos
- Mabe Moda y Complementos
- Mahiko Peluquería y Belleza
- Mechas
- Mercería Lencería Maite
- Mi Mundo de Azúcar
- Mimarte Shop
- Occident Algorta
- Peluquería I. O.
- Marsun Estilistas
- Pregostyling Salud y Estética
- Retroestilistas Peluq. y Estética
- Sarintel Informática
- Snoopy
- Teima
- Toysmaniatic Algorta
- Uranga Moda
- Zapateka

CESTA DE PRODUCTOS

SASKIA

PATROCINADOR

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

BABESLEA

Gorde erosketa-tiketa.



Gabonetan

EZ IZAN TXORIBURU

Kontsumitu buruarekin

Eta zalantzarik baduzu,

kontsumobide.eus

#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO